

YALDEN MAXWEL JAUNAREKIN ELKARRIZKETA

1983-VII-6

Jose M.^a Satrustegi

Uztailaren 6an, Canadako hizkuntz ofizialen Ararteko den Yalden Maxwel jaunarekin elkartu zen Euskaltzaindia. Bere eskariz, Galdakaoko Andra Mari jatetxean bildu ginen. Atienza Bizkaiko Kultur ordezkaria eta Canadako kontsula zituen lagun. Euskaltzaindiaren izenean, L. Villasante, J. Haritschelhar, J. M. Satrustegi, P. Altuna, San Martín, A. Irigoyen eta J. L. Lizundia egon ziren. Euskararen berri jakin nahi zuen. Ofizialki izan dituen eragozpenak agertu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren aldetik sortutako ekintzen azalpena egin zitzaion. Nafarroako egoera azpimarratu zen batez ere.

Arretaz jaso zuen esandakoen berri eta noizbait Canadian elkar ikusteko gogoia agertuz amaitu zuen bilera.